

## Turismoa Plazaola eta Mendialdean

### AMIA orokorra

<b>AUKERAK</b>	<b>MEHATXUAK</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Zonaldeak dituen baliabideen eskaera geroz eta handiagoa da eta egungo turismo eskaintza indartzeko aukera ematen du.</li> <li>• Turismo eskaintza indartuz, zonaldean lanpostu eta zerbitzu berriak sortzeko aukera. Eta Plazaola Partzuergoko irudia indartuz, erakunde eraginkorragoa izateko aukera, beste erakunde eta eragileen aurrean.</li> <li>• Inguruko eskualdeak eta erakundeak (Sakana, , Andoain, GFA, Basquetour...) lankidetzarako prest egotea.</li> <li>• Destino edo jomuga bezala indartzeko aukera (Nafarroako Gobernuaren Turismoko Plan Estrategikoarekin eta Next Generationen Destino Iraunkorren planteamenduetan bat eginez).</li> <li>• Finantzazio bideak indartzeak (Diru-laguntzak, kide berriak...) proiektu berrietarako ematen dituen aukerak.</li> <li>• Digitalizazioak eta teknologia berriek eskaintzen dituzten aukerak zerbitzua hobetzeko eta promozionatzeko (App-ak, QR kodeak...).</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Zonaldeko azpi-egituren gabeziak (internet konexio eskasa, mugikortasunerako zerbitzu urriak, ...) turismo zerbitzuaren kalitatean duten eragina.</li> <li>• Kanpoko eragileekiko menpekotasuna: legedia, diru-laguntzak, baliabideen jabeak...</li> <li>• Zonaldea (destinoa) baliabide oso espezifikoekin identifikatzea (Plazaolako bide berdea), beste baliabide batzuk (potentzialak) itzalean geratuz.</li> <li>• Une batzuetan behar adina zerbitzurik ez egotea.</li> <li>• Gero eta zorrotzagoak diren araudiengatik, inbertsioak areagotu beharra.</li> <li>• Lehen sektorea tokiko ekonomia gisa desagertzea, eta, neurri handi batean, lurraldearen eta inguruko baliabide erakargarri askoren euskarri gisa.</li> </ul>
<b>INDARGUNEAK</b>	<b>AHULUNEAK</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Zonaldeko ikuspegiarekin aritzeak proiektuari ematen dion sendotasuna.</li> <li>• Politikoki, inoiz baino apustu handiagoa turismoa sustatzeko.</li> <li>• Plazaola Partzuergoaren esperientzia, eza-guna izatea. Plazaola Partzuergoa egotea zonaldeko turismo sektorea saretu, egituratu eta koordinatzeko.</li> <li>• Plazaolako bide berdez gain, askotariko baliabideak eta aukerak dituen zonaldea izatea. Batzuk oso propioak eta identitarioak izatea.</li> <li>• Kokapen geografiko ona izatea.</li> <li>• Eskaintza turistikoa pribatua askotarikoa eta ugaria da.</li> <li>• Turismoak zonaldeko ekonomian duen inpaktua igo da azken 25 urtetan eta sektore ekonomiko inportantea bihurtu da.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Bazkidetza. Kideen parte hartzea eta inplikazioa lortzeko zailtasunak.</li> <li>• Zonaldeak turismo arloan duen potentzialitate guztia ez ikustea.</li> <li>• Baliabideak mantentzeko arazoak (ekonomikoak, planifikaziozkoak...).</li> <li>• Sektorearen negozio-eredua: familia-enpresak, pertsona bakarrekoak... Orokorrean profesionalizazio maila txikia eta errelebo falta.</li> <li>• Zonaldearekiko eta baliabideekiko ezagutza maila txikia. Informazio guneak eta posizionamenduari eta marketinari begira hobetzeak.</li> <li>• Herri ikuspegitik ateratzea kosta. Lokalismoak. Indarrak biltzeko eta era bateratuan lan egiteko zailtasunak.</li> </ul>